

Iragana bihar

Tradizioa egunero hasten delako... esan genezake, neronek aurreko artikuluetan beatifikatu dudan idazlearen izenburu bat berreskuratu eta aldatuz. Bai, Juanjo, tradizioa eta kanona ez datoz zerutik, guk geuk eguneko beharren arabera sortuak dira, eta esku artean daukagun indar sozial, ekonomiko eta faktikoak ahalbidetzen du tradizio horren indarrean ezartzea. Eta, jakina, tradizioaren bertsio ezberdinak egongo dira lehen, tradizioak beti interes batzuei mesede egiten dielako, eta beste batzuei kalte. Josi, esaten zenedan ez zela kontua Axularri kendu eta Sazarbitoriari ematea, baina uste dut neurri batean badela bai hori kontua, bortitza iruditu arren. Kontua ez da behar bada Axularri kentzea, baina bai Axularri eman izan zaiona berrebaluatzea eta “produzitu” nahi dugun tradizioaren arabera banatzea zor zaion hori. Axular asko daude, eta niri neure literaturzale beharren araberrako Axular hori interesatzen zait, ez besterik.

Ni ere, Juanjo, gure testu klasikoen irakurketa *post* eta trabesti guztien aldekoa naiz, kasu askotan ez dagoelako berauek irakurgarriak bihurtzeko beste modurik. Haatik, ariketa horrek baditu bere mugak. Izan ere, *Garoa* bera baino gusturago irakurriko baitut, finean, liburuaren zure interpretazio *queer*-a. Hots, nire ikasleei nekez emango diet irakurtzeko testu bat bere gaininterpretazioak plazera eman didalako bakarrik. Ez da justifikazio aski indartsua, ez da aski intrintsekoa.

Uste dut bagarela orain aski osasuntsuak, gartuak, eta testu irakurgarrien altxor “nazionala” nahiko handia dela dagoneko ekumenismo kulturalaren aizto kamutsa baztertu eta harakin aizto ongi



DANI BLANCO

Mr. Apalategi

Basterretxea

Olasagerre

zorroztuarekin mozten has-teko tradizioaren xerrak. Bestela haragi puska infor-meak ezin murtzikatuz itoko gara halako batean, jakitera iritsi gabe zer zen gihar eta zer gantz ala zain.

Gaizkiulertu batzuk gain-ditu beharko ditugu harakin lan horretan. Lehenik, filologia eta literatura ongi bereizten hasi beharko dugu, behingoz. Axular filologoentzat solomiloa izango bada (eta bejondeiela, zinez), literaturzaleontzat, berriz, zehazki definitzeke dagoen beste zerbait izango da. Literatura eta (euskaraz) “ondo idaztea” bi gauza ezberdin direla onartzen hasiko gareneko aurrerapausoa ez da txikia izango.

Bigarren gaizkiulertua larriagoa da, sistema literarioaren egoera orokorrarekin zerikusia duelako, baita euskal gizartearen egoera orokorrarekin. Izan ere, kanonizazio prozesu literarioaren atzean beti baldin badago indar bat bultzatzen, egungo egoera literario nahasia ulertu nahi badugu hasi beharko genuke ere galdekatzen zein indar dagoen kanonizatzeke bidean dauden gure idazle potoloenen atzean bultzaka? Hau da, gure sistema literario nerabea ote da idazle hauek kanonizatzen dituen ala beste nonbaitetik (gurea ez den sistema indartsuago batetik, espainiar sistemaz ari naiz, noski) dator bultzada? Nik uste lehia bat dagoela arlo horretan eta askotan kanpoko bultzada barnekoa baino indartsuagoa dela, hots kanpoko ikuspegitik irakurtzen ditugula gure autoreak, geure epaitzeko ahalmen sinetsiko ez bagenu bezala, geure behar literarioen kontzientzia garbirik ez bagenu bezala. Beste kontu bat da jakitea geure legitimazio zirkuitu propioak ondo funtzionatzen duen. ■

« Gaizkiulertu batzuk gaintitu beharko ditugu harakin lan horretan. Lehenik, filologia eta literatura ongi bereizten hasi beharko dugu, behingoz. Axular filologoentzat solomiloa izango bada (eta bejondeiela, zinez), literaturzaleontzat, berriz, zehazki definitzeke dagoen beste zerbait izango da »